

MINBIZIAREN TRATAMENDURAKO NANOIMANAK

- **Jakintza adarra:** Zientziak
- **Campusa:** Bizkaia
- **Ikastegi antolatzailea:** Zientzia eta Teknologia Fakultatea
- **Gradua/k:**
 - Fisika
 - Biologia
 - Bioteknologia
 - Biomedical Engineering
- **Garapen-lekua (helbidea):** Zientzia eta Teknologia Fakultatea eta Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea. Sarriena auzoa s/n. Leioa Bizkaia

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Proposatutako jarduera ikerketa zientifikoko proiektu batean oinarritzen da eta helburua minbizia tratatzeko eta sendatzeko nanoimanen aplikazioa aztertzea da. Ikerketa proiektu honetan nanoteknologiaren bidez nanometro-tamainako imanak fabrikatzen dira, eta zelulak suntsitzen dira nanoimanak minbizi zelulen hazkuntzetan erabiliz, kanpoko eremu magnetikoen ekintzari esker. Proposatzen diren jarduera praktikoak teknika hauetan zentratzen dira: imanak kanpoko eremu magnetikoen eraginpean zelan manipulatu eta zelula-hazkuntzako prozedurak zelan gauzatu; horrek Fisikaren eta Zelulen Biologiaren ezagutza-arloak barne hartzen ditu.

(www.magnamed.org)

2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

Helburua da ikasleei erakustea nola Fisika eta Biologiako oinarrizko kontzeptuak erabiliz nanoteknologiaren bidez fabrikazio-teknikak gara daitezkeen, materialetan eragin espezifikoak sor daitezkeen eta interes mediko handiko laginak azter daitezkeen, hala nola, tumore-ehunen biopsiak.

Oinarrizko bi gai landuko dira: Eremu magnetikoen sorrera eta horien aplikagarritasuna biologia zelularreko saiakuntzetan. I) Eremu magnetikoa. Minbizi-zelulak nanoimanekin tratatzean, kanpo-eremu magnetiko alternoak aplikatu behar dira. Ikasleei erakutsiko zaie nola sortzen diren eremu magnetiko horiek eta nolako eragina duten imanengan heriotza zelularra eragiteko. II) Biologia zelularra. Minbiziaren tratamendu horiek ikertzeko esperimentuak minbizi-zelulen *in-vitro* hazkuntzetan egiten dira. Ikasleek hazkuntza zelularren manipulazioan parte hartuko dute eta mikroskopioan benetako biopsien tumore-ehunak aztertuko dituzte.

3. EGINO DIREN EKINTZAK

24 ikasleko multzo bakoitza 12 ikasleko bi azpitaldetan banatuko da. Azpitalde batek Biologia Zelularreko jarduerak egiten dituen bitartean, besteak Fisikako laborategiko jarduerak egingo ditu. Gero elkar trukatu egingo dira, eta ikasle bakoitzak zirkuituko jarduera guztiak egingo ditu.

1. Jarduera: proiektu zientifikoa azalpena eta ikerkuntzarako laborategiak bisitatzea. Parte hartzen duten irakasleen ikerketa-laborategietan eskuragarri dagoen tresneria erakutsiko zaie ikasleei. Horri esker, lan profesionalaren eta jarduera esperimentaletan egingo dituzten kontzeptu zientifikoaren arteko loturak ulertu ahal izango dituzte.

2. Jarduera: eremu magnetikoa. Korrante elektrikoek eremu magnetikoak nola sortzen dituzten erakutsiko da, eta, baita imanetan bibrazioak eragiten dituzten eremu magnetiko alfernoak zelan sortzen diren korrante alfernoen bidez. Ekintza hori heriotza zelularra eragiteko erabiltzen da. Ikasleek uhin-funtzioen sorgailuak erabiliko dituzte txandakako eremu magnetikoak sortzeko. Osziloskopio batez deskribatuko dituzte forma, maiztasuna eta anplitudea.

3. Jarduera: imanak. Zelulekin egindako saiakuntza biomedikoetan erabilitako nanoimanen konfigurazio magnetikoari eta imaneki buruzko oinarriko kontzeptuak azalduko dira. Imanekin jarduerak egingo dituzte, haien interakzioak, eremu-lerroak eta eremu magnetikoen bidezko urruneko eragina aztertzeke.

4. Jarduera: kultibo zelularrak. *in vitro* zelula-hazkuntzak nola prestatzen diren, zelulen ugalketa-baldintzak eta zelulen manipulazioa erakusten da. Ikasleek hazkuntza-medioa prestatzeko jarraitu behar diren jardueren pausuak jarraituko dituzte: inguruaren prestatzea, zelulen eritea eta nanodiskoekin egindako tratamendua. Azkenik, mikroskopioan kultibo zelularrak behatuko dituzte.

5. Jarduera: tumore-ehunak. Ikasleek azaleko minbiziaren biopsien laginak aztertuko dituzte mikroskopio optikoan. Ehun osasuntsuak eta tumore-ehunak bereizten ikasiko dute.

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Orduetgia	Plazak
2024-05-28	Gaztelania	Goizez	10:00 – 14:00	24
2024-05-30	Elebiduna	Goizez	10:00 – 14:00	24
2024-06-11	Gaztelania	Goizez	10:00 – 14:00	24
2024-06-13	Elebiduna	Goizez	10:00 – 14:00	24